



ARABAKO EKONOMIA: Egoeraren adierazleak



2020ko Apirila

www.araba.eus



AURKIBIDEA

1. EKONOMIA INGURUNEA	3
2. ARABAKO EKONOMIA	7
2.1. KANPO MERKATARITZA	8
2.2. BENETAKO BARNE PRODUKTU GORDINA	9
2.3. INDUSTRIA EKOIZPENA	10
2.4. INDUSTRIA EGOERA	11
2.5. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA	13
3. LABURPEN TAULA. ADIERAZLE NAGUSIAK	14



EKONOMIA INGURUNEA

- **Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA), martxoan argitaratu duen aurreikuspen ekonomikoei buruzko azken txostenean, ohartarazpen argia egin du: agertoki txar bat daukagu aurrean, eta beste bat are txarragoa. Txarrena ez den agertoki horren oinarria da urtearen lehen zati honetan gaitutuko dela Covid-19aren gailurra eta munduan ondorio “leunak” izango dituela, eta oraingoz horren alde egin du ELGak. Bada, agertoki horretan, ELGak aurreikusi du 2020an hazkunde globala % 2,4koa izango dela, azaroan egindako azken txostenean aurreikusi baino puntu erdi txikiagoa (% 2,9); eta zifra hura “ahul”tzat jo zuen, orduan ere. Baliteke 2020ko lehen hiruhilekoa negatiboan amaitzea ere.**
- **Baina epidemia udatik harago luzatzen bada, horrek eragin lezake munduko ekonomiaren hazkundera % 1,5era jaistea 2020 honetan, eta birusa lehertu aurretik aurreikusitakoaren erdia da hori. ELGak ohartarazi duenez, egoera horrek “atzeraldira eraman ditzake hainbat ekonomia, Japoniakoak eta eurozonakoak barne”.**
- **2021ean lortu beharko litzateke ekonomia leheneratzea eta ELGak, ordurako, aurreikusi du ekonomiak gora egingo duela eta-% 3,3 hazi, azaroan aurreikusi baino hiru hamarren gehiago. Hori, baldin eta “birusaren agerraldiaren ondorioek indarra galtzen badute”.**



EKONOMIA INGURUNEA

- ELGAK, era berean, gogorarazi du, koronabirusaren krisia alde batera utzita ere, munduko ekonomia sufritzen ari dela aspalditik, beste arazo batzuk direla medio, eta agerraldi berri honek ez dituela arazo horiek desagerrarazi. Orogen gaintetik, “merkataritzako eta inbertsioetako tirabirak” dira, eta ELGAK gogorarazi du handiak direla oraindik ere, eta hedatzen jarrai lezaketela. Horren harira, erakundeak “zalantzazko”tzat jo du Estatu Batuen eta Txinaren artean merkataritza akordio bat egiteko aukera, azken bi urteetan ezarri diren eta oraindik indarrean dirauten muga zerga guztiak kentzeko.
- ELGAK orobat ohartarazi du, azken urteotan esan eta esan ari den bezala, arriskua dakarrela Erresuma Batuen eta Europar Batasunaren arteko etorkizuneko merkataritza harremanaren gaineko ziurgabetasunak, orain Brexita burutu delarik, eta horrek ahulago eta “aldakorrago” egin lezakeela bi zonetako ekonomia.
- ELGaren martxoko txosten horretan, urtean birritan ematen dituen albisteen hiru hilean behingo berrikuspina egin da, eta zifra globalak eta munduko ekonomia nagusienak baino ez ditu ematen. Hortaz, ez da Espainiaren hazkundera berrikusi. Hala egin du Nazioarteko Moneta Funtsak apirilaren 14an; Espainiako ekonomia %8 jaitsiko dela aurreikusten da aurten, eta egoera hori hobetu egingo da 2021erako, %4,3ko hazkunderarekin.



EKONOMIA INGURUNEA

- Espainiarako hazkundeari buruz gobernuak otsailean argitaratutako azkeneko aurreikuspenen arabera, % 1,6ko hazkundera egongo da aurten eta % 1,5ekoa datorren urtean. COVID-19ak eragindako osasun krisia deklaratu aurretik egin ziren aurreikuspen horiek, eta krisialdiak eragin handia izango duenez ekonomian eta gizartean, beherantz berrikusi beharko dira.
- Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera, Espainiako ekonomiaren BPGd-ak urtetik urterako % 1,8ko hazkundera izan zuen 2019ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan izandakoa baino hamarren bat txikiagoa eta 2018ko azkeneko hiruhilabetekoa baino bederatzi hamarren txikiagoa. 2019. urterako, Espainiako ekonomiaren BPGd-ak % 2,0ko hazkundera izan zuen, 2018an baino lau hamarren txikiagoa.



EKONOMIA INGURUNEA

- Euskal Autonomia Erkidegoko BPGd-ak, bestalde, Eustatek aurreratutako azken informazioaren arabera, urtetik urterako % 2,2ko hazkunde positiboa izan zuen 2019ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilabetekoan baino hamarren bat handiagoa baina ia baino lau hamarren txikiagoa. 2019. urte osoan, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiako BPGd-ak % 2,2ko hazkundera izan zuen, 2018an baino zortzi hamarren txikiagoa.
- Martxoan, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak berrikusi ditu, Covid-19ren pandemiaren ondorioak direla eta gertatzen den ohiz kanpoko egoeraren aurrean. Hilabete baterako konfinamendu-agertoki batekin lan egin da, eta 45 eta 60 eguneko trantsizio-aldia eskatzen duen normaltasunera pixkanaka itzultzeko hipotesiarekin. Horrekin, euskal ekonomia% 3,6 murriztuko da 2020rako, eta% 2,6 haziko da 2021erako.
- 2020ko lan merkatuari buruzko aurreikuspenek, enplegua urtean 1,7 puntu jaitsiko dela erakusten dute, 17.000 lanpostu galduz. Langabezia tasa %11,4an geratuko litzateke. 2021ean enpleguak 1,6 puntu egingo luke gora, eta 15.000 lanpostu sortuko lirateke. Horri esker, %10etik beherako tasara itzuli ahal izango ginateke, %9,6ra, hain zuzen ere.



ARABAKO EKONOMIA

- 2018ko azaroan eta abenduan, Arabako esportazioak urtetik urterako hazkunde negatiboak erregistratzen hasi ziren, eta joera hori mantendu zen 2019ko lehen hiru hiruhilekoetan. Azken hiruhilekoan hazkunde positiboa izan arren, 2019ko ekitaldia Arabako esportazioen % 3,1eko jaitsierarekin itxi zen. 2020ko urtarrileko datuek erakusten dute esportazioek behera egin dutela berriz ere, % 2,7.
- Arabako industria jarduerari dagokionez, esportazioek izan zuten jarreraren oso antzekoa izan zuen 2019an. Kasu horretan, 2019an % 1,7 erori zen Industria Produkzioaren Indizea (IPI). 2020ko otsaileko azken datu argitaratuaren arabera, hobekuntza izan da, Industria Ekoizpenaren Indizearen % 2,1eko hazkunde metatua egon delako urtearen lehenengo bi hilabeteetarako. Edonola ere, datozen hilabeteetarako, eragin negatiboa aurreikusten da industria jardueran, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz
- Eustaten datuen arabera, Arabako BPGd-ak urtetik urterako % 2,0ko hazkunde tasa izan zuen 2019 osoan, zortzi hamarren gutxiago 2018an baino.
- Langabeziari buruzko martxoko azken datuek dagoeneko erakusten dute koronabirusaren krisiaren ondorioak. Martxoan, 21.448 langabetu gehiago dago, otsailean baino 2.109 pertsona gehiago eta duela urtebete baino 2.009 pertsona gehiago.
- 2019a % 1,1eko inflazio tasarekin bukatu zen. 2020ko martxoan, tasa balio negatiboetara jaitsi zen, -% 0,1.



Kanpo Merkataritza


(Urtearteko bariazio tasa)

	2018	2019 (*)	2020ko metatua (*)	Azken datua (*)	Data
Esportazioak	2,5	-3,1	-2,7	-2,7	20-urtarrila
Inportazioak	4,7	-1,7	-2,1	-2,1	20-urtarrila
Estaldura Indizea (%)	173,2	170,9	189,9	189,9	20-urtarrila

Merkataritza Idazkaritzaren behin-behineko datuek diotenez, Arabako esportazioek % 3,1eko jaitsiera metatua izan dute 2019an, eta inportazioek % 1,7koa.

Iturria: Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa, Aduanetako Idazkaritza


(*) Behin-behinekoa





Benetako Barne Produktu Gordina

Arabako BPGd-ak urtetik urterako % 2,4ko tasa positiboa izan zuen 2019ko laugarren hiruhilekoan, urtean zehar izandako hazkunde tasarik handiena, baina 2019 osorako, hazkundea % 2,0koa izango dela aurreikusten da, 2018an baino zortzi hamarren txikiagoa.



Iturria: EUSTAT
(*) behin-behinekoa



Industria Ekoizpena

2019. urtean zehar, Arabako industria produkzioaren indizearen aldakuntza tasek marka negatiboa izan dute urtarriletik urrira bitartean. Azaroan eta abenduan zertxobait suspertu zen baina ez da nahikoa izan urte osoko hazkunde tasa positiboa izateko. Hortaz, 2019rako balantzea % 1,7ko jaitsiera izan zen.

2020ko otsaileko azken datu argitaratuaren arabera, hobekuntza izan da, Industria Ekoizpenaren Indizearen % 2,1eko hazkunde metatua egon delako urtearen lehenengo bi hilabeteetarako. Edonola ere, datozen hilabeteetarako, eragin negatiboa aurreikusten da industria jardueran, COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz.




Iturria: EUSTAT



Industriaren Egoera

2019ko urritik abendura bitartean, Arabako industria enpresen barruko eskabide zorroak igoera garbia izan zuen, eta kanpokoek ez zuten aldaketarik izan. Hori gorabehera, eskabide zorroa, oro har, maila apalean mantendu zen


Ekoizpen ahalmena gehiago erabiltzea oztopatu duten arrazoi nagusietako bat da eskaeraren ahuldadea, bai barnekoarena bai kanpokoarena. Eragin txikiagoa dute beste batzuek, hala nola urte sasoiari loturiko alderdiek, lehiak eta inportazioek eta eskulan espezializatua lortzeko zailtasunak



Iturria: Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera



(BPG ETA IEA) BILAKAERA



	2017				2018				2019			
	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV
ARABA												
BPG	2,5	2,3	1,9	2,0	2,7	3,0	2,9	2,4	2,0	1,8	1,6	2,4
IEA	6,2	5,8	2,3	6,0	2,4	1,2	2,5	-8,5	-3,1	-3,5	-4,4	4,5
EAE												
BPG	2,8	2,7	2,8	2,8	3,2	3,2	3,0	2,6	2,2	2,6	2,4	3,0
IEA	3,8	4,4	7,0	7,8	4,6	3,3	3,5	-2,4	1,0	1,4	1,4	2,6
ESTATUA												
BPG	2,5	3,2	2,8	3,0	2,8	2,3	2,2	2,1	2,2	2,5	2,3	3,1
IEA	1,9	2,8	2,8	5,2	2,7	0,9	0,3	-2,8	-0,1	1,7	1,0	0,3


Iturria: Eustat eta INE. IEA: 2015eko oinarria . BPG: 2015eko oinarria . SEC 2010



Erregistratutako Langabezia

Koronabirusaren krisia dela-eta otsailean baino 2.109 langabetu gehiago dago Araban, 2020ko martxoan. Igoera hori dela-eta 21.448 langabetu dago, guztira. Iazko hilabete berarekin alderatuz, langabezia % 10,33 igo da (2.009 pertsona gehiago).

Sektoreka, aurreko hilabetearekin alderatuta, Araban langabetuen kopurua sektore guztietan igo da, batez ere zerbitzuetan eta industrian. Iazko hilabete berarekin alderatuz gero, langabeziak gora egin du sektore guztietan, lehenago lanik gabe zeudenen taldean izan ezik. Igoera handiagoa da zerbitzuetan eta industrian.





Laburpen Taula. Adierazle Nagusiak

(Urtearteko bariazio tasa) (%)

	2018	2019	2020ko metatua	Azken datua	Data
BPG					
Estatua	2,4	2,0		1,8	19-IV Hi
EAE	3,0	2,2		2,2	19-IV Hi
Araba	2,8	2,0		2,4	19-IV Hi
IEA					
Estatua	0,2	0,7	-1,9	-1,4	20-otsaila
EAE	2,2	1,6	-0,4	1,7	20-otsaila
Araba	-0,7	-1,7	2,1	7,8	20-otsaila
KPI					
Estatua	1,2	0,8		0,7	20-otsaila
EAE	1,0	1,2		0,8	20-otsaila
Araba	0,8	1,1		0,7	20-otsaila
ESPORTAZIOAK					
Estatua	3,3	1,7	2,7	2,7	20-urtarrila
EAE	6,9	-1,5	1,4	1,4	20-urtarrila
Araba	2,5	-3,1	-2,7	-2,7	20-urtarrila
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA					
Estatua	-6,2	-1,2		9,0	20-martxoa
EAE	-6,2	-4,6		8,7	20-martxoa
Araba	-4,1	-5,4		10,3	20-martxoa

Datu absolutuak (%)

LANGABEZI TASA EPA Inkesta (INE)					
Estatua	15,3	14,1		13,8	19-IV Hi
EAE	10,0	9,2		9,1	19-IV Hi
Araba	9,1	8,3		7,3	19-IV Hi
LANGABEZI TASA BJA Inkesta (EUSTAT)					
EAE	10,3	9,6		9,3	19-IV Hi
Araba	10,8	10,3		9,8	19-IV Hi

Iturriak: INE, EUSTAT, SEPE, Aduenetako Merkataritza